

## EITBREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA IRUZURRAREN AURKA

EiTB Erakunde Publikoa Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren erakunde betearazlea da, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan xedatutakoaren arabera; izan ere, bere jardueraren eremuan, Berreskurapen, Transformazio eta Erresilientzia Planean jasotako ekintzak gauzatzea dagokio.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduak, 2021eko otsailaren 12koak, Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duenak, xedatzen du estatu kideek neurri egokiak aplikatu behar dituztela Batasunaren finantza-interesak babesteko, eta bermatzeko funtsen erabilera, Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismoak finantzatutako neurriei dagokienez, bat datorrela Batasunaren eta Estatuko zuzenbidearekin, zehazki, ustelkeria, iruzurra eta interes gatazkak ekidin, antzeman eta zuzentzeari dagokionez.

Egoera horren aurrean, eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzean iruzurraren aurkako borroka-politika indartzearen garrantzia kontuan hartuta, EiTB Erakunde Publikoaren zuzendari nagusiak eta haren menpeko sozietateak, EiTB MEDIA, SAUk, arau juridiko, etiko eta moralak betetzeko estandar altuenekiko konpromisoa adierazi nahi dute, bai eta integritatearen, objektibotasunaren eta zintzotasunaren printzipio zorrotzenekiko atxikimendua adierazi ere, modu horretan, berarekin harremanak dituzten agente guztiek EiTB Taldearen jarduera iruzurraren eta ustelkeriaren esparrutik at antzeman dezaten.

EiTB Erakunde publikoko eta EiTB MEDIA, SAU sozietateko Zuzendaritza Taldeak konpromiso hori hartu eta partekatzen dute, eta, besteak beste, interes orokorra zaindu behar dute, indarrean dagoen ordenamendu juridikoa errespetatuz eta betez. Printzipio hauen arabera jardun beharko dute: objektibotasuna, osotasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, zerbitzu publikoan aritzea, gardentasuna, eredugarritasuna, austeritatea, irisgarritasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, kultura- eta ingurumen-ingurunearen sustapena eta gizon-emakumeen arteko berdintasuna.

Horri dagokionez, iruzurrak Ekiditeko Plan bat onartu da iruzurraren eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko neurri eraginkor eta proportzionatuak abian jartzeko, planteamendu proaktibo, egituratu eta espezifiko batean oinarrituta iruzurraren arriskua kudeatzeko, eta horrek bermatuko du Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren jarduketetan egindako gastuak gauzatzerakoan ez dela interes-gatazkarik, iruzurrik eta ustelkeriarik egon. Hori lortzeko, iruzur-arriskuaren ebaluazio bat egin da eta horrez gain, iruzurra edo ustelkeria eman daitezkeen egoerak prebenitzeko, detektatzeko eta salatzeke eta horien jarraipena egiteko prozedurak onartu dira. Hori guztia 2019ko uztailetik EiTB Taldean ezarrita dagoen Arauen Betepen Planaren barruan dago, eta Plan hori 2021ean eta 2022an eguneratu da.

Politika horren eta barne-sistema arauemaile horren (Arauen Betepen Plana, Iruzurrak Ekiditeko Plana barne hartzen duena) helburua da erakundearen barruan etika-kultura bat sustatzea, iruzurrezko jarduera oro hutsalduko duena eta horien prebentzioa eta detekzioa erraztuko duena, kasu horiek kudeatzeko prozedura eraginkorren garapena sustatuz.

Azken batean, EiTBren Zuzendaritza Nagusiak eta EiTB Taldeko zuzendaritza-talde osoak "tolerantzia zero" politika aplikatzen dute iruzurraren eta ustelkeriaren aurrean, eta kontrol-

sistema sendo bat ezarri da, bereziki diseinatua ahal den neurrian iruzur-ekintzak prebenitzeko eta detektatzeko, eta horien eragina zuzentzeko, halakorik gertatuz gero.

Bilbon, 2022ko maiatzaren 5ean.